



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK,
ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-
BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ,
honako hau**

**D. IÑAKI GALDOS LANDA EL
SECRETARIO ACCTAL. DEL
ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE
ELGOIBAR.**-----

ZIURTATZEN DUT:

Bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bian, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bian, arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatzarraren Osoko Bilkura lehenengo deialdian bildu da, ezohiko bilera egiteko, Ane Beitia Arriola Alkate-lehendakariaren gidaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen buru den Ane Beitia Arriola andrea, Iosu Arraiz Aramburu jauna, Maialen Gurrutxaga Uranga andrea, Gorka Garaizabal Agirregomezkorta jauna, Bittori Zabala Fernandez andrea, Andrea Arriola Ferrer andrea, Blanca Larrañaga Iriondo Andrea, Ioseba Arrizabalaga Mendikute jauna eta Unai Arizmendiarieta Garcia jauna. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean, Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna, Mireia Isasmendi Aizpiri Andrea, Miren Arrate Arrieta Jauregi andrea, Joseba Osoro Iturbe jauna eta Jon Peli Uriguen Ansola jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Nerea Alustiza Alonso andrea.

Ezin etorria adierazi du Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Fernando Suarez Varela jauna.

Ez dira bertaratu: EH BILDU Udal-taldearen izenean; Iñaki Larrañaga Etxabe jauna.

CERTIFICO:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día veintidós marzo de dos mil dieciocho, es del tenor literal siguiente:

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintidós de marzo de dos mil dieciocho, reúnen en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión extraordinaria, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Doña Ane Beitia Arriola y a la que asisten los Corporativos: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco, del que forma parte la Sra. Alcaldesa: Don Iosu Arraiz Aramburu, Doña Maialen Gurrutxaga Uranga, Don Gorka Garaizabal Agirregomezkorta, Doña Bittori Zabala Fernandez, Doña Andrea Arriola Ferrer, Doña Blanca Larrañaga Iriondo, Don Ioseba Arrizabalaga Mendikute y Don Unai Arizmendiarieta García. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Jose Luis Ibarzabal Eguibar, Doña Mireia Isasmendi Aizpiri, Doña Miren Arrate Arrieta Jáuregui, Don Joseba Osoro Iturbe y Don Jon Peli Uriguen Ansola. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Doña Nerea Alustiza Alonso.

Excusa asistencia: Por el Grupo Municipal PSE-EE; Don Fernando Suárez Varela.

No asiste: Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar; Don Iñaki Larrañaga Etxabe.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Iñaki Galdos Landa Jaunak, behin-behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.

LEHENENGOA.- 2018KO OTSAILAREN 22AN EGINDAKO BILERARI DAGOKION AKTA ONARTZEA.-

PRIMERO.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 22 DE FEBRERO DE 2018.-

Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita bian egin zen bilerari dagokion akta.

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el día veintidós de febrero de dos mil dieciocho, la misma es aprobada por unanimidad.

BIGARRENA.- ERTZAINZAREN ETA UDALTZAINGOAREN ARTEKO LANKIDETZA DELA ETA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ELGOIBARKO UDALAREN ARTEAN SINATUKO DEN LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-

SEGUNDO.- APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y EL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR PARA LA COOPERACIÓN DE ERTZAINZA Y POLICÍA LOCAL.-

Aho batez onartu eta erabaki bihurtu da, Udal Kudeaketarako Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

“Lehenik eta behin, kontuan izan behar da euskal polizia eredu Euskadiko Poliziak osatzen duela, hau da, Ertzaintzak eta tokiko poliziek-Udaltzaingoen; hurrenez hurren, Eusko Jaurlaritzaren eta euskal udalen ardurapean daudenean.

“Resultando que el modelo policial vasco se conforma por la Policía del País Vasco, suma de la Ertzaintza, dependiente del Gobierno Vasco y las policías locales- Udaltzaingoa dependientes de los municipios vascos.

Kidego bakoitzari emandako funtzioak onartuta ere, eredu horren koherentziak kidego horien arteko osagarritasuna lortzera behartzen du, elkarren arteko harremanerako eta lankidetzarako mekanismoen bitartez.

Con respeto a las funciones atribuidas a cada cuerpo, la coherencia de dicho modelo obliga a buscar su complementariedad mediante mecanismos de interrelación y cooperación.

Euskadiko Segurtasun Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 42. artikuluan eta ondorengo arabera, bi polizia kidegoek laguntza eta informazioa eman behar dizkiote elkarri; bi kidegoek

Considerando que, conforme a los artículos 42 y siguientes de la ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi ambos cuerpos policiales deben prestarse mutuo auxilio e



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

erabiltzeko komunikazio sarea sortu eta mantendu behar dute eta komunikazio zentralen arteko lotura erraztu; neurriak hartu behar dituzte Tokiko Polizia-Udaltzaingoa Datuak Lantzeko Euskadiko Poliziaren Zentroan sartzeko; polizia zentroen erabilera partekatua bultzatu behar dute; zerbitzu komunak sortu behar dituzte, eta denentzako dokumentuen, inprimakien eta formularioen erabilera bultzatu behar dute.

Hala, elkarlan eta lankidetzara hori errazteko, lege horrek tokiko esparruko poliziaren koordinaziorako batzordeak sortzea eta poliziaren elkarlanerako hitzarmenak sinatzea aurreikusten du.

Era berean, aipatzekoa da Ertzaintzaren eta Tokiko Poliziaren – Udaltzaingoen arteko lankidetzarako bitartekoen premia hainbat faktoreren ondorio dela:

a) Bi kidegoenak diren funtzioak edo funtzio partekatutakoak egotea. Horrek koordinatzeko beharra ezartzen du, bitartekoen eta baliabideen erabilera arrazionalizatzeko eta emaitza eraginkorragoak eta efizienteagoak lortzeko edo ekintzak edo operatiboak batera exekutatzeko.

b) Lurraldean betetzen den hainbat funtzioen osagarritasuna. Ondorioz, kidego batenak diren funtzioez baliatzerako orduan, besteen eskumenek jasaten dituzten ondorioak izan behar dira kontuan. Hori dela eta, ezinbestekoa da intereseko informazioa elkarren artean partekatzea.

c) Berezkoak diren eskumenez baliatzeak lurraldetik kanpo duen eragina. Horrek zentzu horretan egon daitekeen lankidetzara hitzartzera behartzen du.

información recíproca; crear y mantener una red de comunicación de uso común y facilitar la interconexión de centrales de comunicación; adoptar medidas para la integración de la Policía Local - Udaltzaingoa en el Centro de Elaboración de Datos de la Policía del País Vasco; propiciar el uso compartido de instalaciones policiales y la creación de servicios comunes y potenciar la utilización de documentos, impresos y formularios comunes.

Considerando que, para facilitar tal colaboración y cooperación dicha ley contempla la figura de las comisiones de coordinación policial de ámbito local y la firma de convenios de colaboración policial.

Considerando que la necesidad de instrumentos de cooperación entre Ertzaintza y Policía local – Udaltzaingoa deriva de diversos factores:

a) La existencia de funciones de ejercicio indistinto o compartidas, que obliga a coordinarse para racionalizar el empleo de medios y recursos y obtener resultados más eficaces y eficientes o para planificar o ejecutar acciones u operativos conjuntos;

b) La complementariedad de algunas funciones ejercidas en el territorio, de forma que en el ejercicio de las competencias propias deben ser consideradas las repercusiones en las competencias ajenas, lo cual hace imprescindible el intercambio de información recíproca de interés.

c) La incidencia extraterritorial del ejercicio de las competencias propias, que obliga a pactar la posible cooperación en tal sentido.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

d) Lurraldean dauden baliabide polizialak optimizatzeko eta beste kidego batzuek bakarrik dituzten bitarteko teknikoak edo zientifikoak partekatzeo aukera.

d) La posibilidad de optimizar los recursos policiales disponibles en el territorio y compartir medios técnicos o científicos sólo disponibles por otros cuerpos.

lido horretatik, kontuan izan behar da Euskadiko Herri Segurtasunaren Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 44. artikulua polizien arteko lankidetzaren hitzarmenak sistematizatzen dituela, horietan jaso daitezkeen edukia ezartzeko eta, bakoitzaren lege eskumenen arabera, zerbitzuak kidegoen artean izendatzeko; poliziaren presentziaren estandar orokorrak zehartzeko; elkarren arteko jardunerako protokoloak edo planak aurreikusteko edo elkarren arteko kudeaketa zerbitzuak eskaintzeko; polizia judizialaren funtzioetan, tokiko poliziaren lankidetzaren aurreikusteko, hala nola salaketak jasotzeko, zehazten diren delitu tipoa ikertzeko eta emaitzak ebaluatzeko adierazleak ezartzeko.

Considerando que el artículo 44 de la Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi, sistematiza los convenios de colaboración policial al establecer sus contenidos posibles: delimitar y asignar los servicios entre los cuerpos conforme a sus competencias legales; definir estándares generales de presencia policial; prever protocolos o planes de actuación conjunta o prestación de servicios de gestión conjunta; contemplar la colaboración de la policía local en funciones de policía judicial, como la recepción de denuncias e investigación de los tipos delictivos que se determinen, y establecer indicadores de evaluación de resultados.

Halaber, esan behar da, Elgoibarko Udalaren eta Ertzaintzaren nahia dela bi administrazioen ardurapeko polizia kidegoei emandako funtzioak betetzeko orduan, ahalik eta lankidetzaren eta elkarlan handiena lortzea.

Considerando que es voluntad del Ayuntamiento de Elgoibar y de la Ertzaintza conseguir la máxima cooperación y colaboración en la ejecución de las funciones encomendadas a los cuerpos policiales dependientes de ambas administraciones,

Horretarako, kontuan izan behar da EUDEL-en proposamena, eta halaber, Ertzaintzaren eta Tokiko Poliziaren arteko lankidetzarako, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio horien eta Erkidegoko Udalen arteko lankidetzarako Esparru Hitzarmena.

Considerando la propuesta de EUDEL y el Convenio Marco de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y los Ayuntamientos de la misma, para la Cooperación de Ertzaintza y Policía Local

Eta beste alde batetik, kontuan izan behar da Hitzarmenaren arloko araudiak egiten duen erregularizazioa, hain zuzen ere, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua, Herri Administrazioen

Considerando la regulación realizada por la normativa en materia de Convenios, en concreto los artículos 100 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, 86 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legaren 86. artikulua eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47-53 artikuluek egiten dutena.

Horiek horrela, besteak beste, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.1, 17.1.4 eta 17.1.5 artikuluetan jasotako eskumenez baliatuta,

Eta bidenabar, adierazitakoa kontuan izanik, arestian aipatutako lankidetzaz hitzarmena aztertirik eta horrekin ados egonik, Udal Kudeaketarako Batzordeak Udalbatzarraren Osokoari proposatzen dio ondorengo **AKORDIOAK** har ditzala:

Lehenengoa.- Ertzaintzaren eta Tokiko Poliziaren arteko Lankidetzarako, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Elgoibarko Udalaren arteko Lankidetzarako Esparru Hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Alkate andreari eskumena ematea, Udalaren izenean, arestian aipatutako lankidetzaz hitzarmena sinatzea.

Hirugarrena.- Akordio hau Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta Udaltzaingoari jakinaraztea.

Laugarrena.- Hitzarmenaren edukiari beharrezkoa den publizitatea ematea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera; eta horretarako hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren Iragarki Taulan eta Gardentasun Atarian argitaratzea, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernantza Onari buruzko abenduaren

Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 47 a 53 de la ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En ejercicio de las competencias municipales recogidas entre otros, en el art. 17.1.1, 17.1.4 y 17.1.5 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi,

Considerando lo expuesto, analizado el convenio de colaboración señalado y encontrándolo conforme, la Comisión de Gestión Municipal propone que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes **ACUERDOS**:

Primero.- Aprobar el Convenio Marco de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ayuntamiento de Elgoibar, para la Cooperación de Ertzaintza y la Policía Local.

Segundo.- Facultar a la Sra. Alcaldesa-Presidenta para la firma, en representación del Ayuntamiento, del mencionado convenio de colaboración.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y a la Policía Municipal.

Cuarto.- Dar la debida publicidad al contenido del mismo de conformidad con lo dispuesto en el art. 55 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, publicando el convenio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el Tablón de Anuncios y en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento, de conformidad al artículo 8.1. apartado b) de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

9ko 19/2013 Legearen 8.1. artikulua
b) atalaren arabera.”

Transparencia, Acceso a la información
pública y Buen Gobierno.”

**HIRUGARRENA.- “EUSKADI
LAGUNKOIA” PROIEKTUARI
ATXIKIPENA.-**

**TERCERO.- ADHESIÓN AL
PROYECTO “EUSKADI
LAGUNKOIA”.-**

Idazkari jaunak Pertsonen Batzordearen
honako irizpen hau irakurri du:

Por parte del Sr. Secretario se procede
a dar lectura del siguiente dictamen de
la Comisión de Personas:

“Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta
Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako
“Euskadi Lagunkoia” Proiektua aztertu
da.

“Visto el Proyecto “Euskadi Lagunkoia”
impulsado por el Departamento de
Empleo y Políticas Sociales del
Gobierno Vasco.

Ildo horretatik, kontutan izan behar da,
lortu behar diren helburuak ondokoak
direla:

Considerando que los objetivos a
conseguir son los siguientes:

- Komunitateko parte-hartze prozesuak
sortzea.

- Generar procesos de participación
comunitaria

- Herritarren bizi kalitatea hobetze
aldera, udalerraren eskumeneko
alorretan aldatetako egiteko
erraztasunak ematea.

- Facilitar la introducción de cambios en
las diferentes áreas competenciales del
municipio a fin de mejorar la calidad de
vida de sus ciudadan@s.

- Adineko pertsonen herri eta hirietan
ongizatea sortzeko duten potentziala
aprobetxatzea.

- Aprovechar el potencial que
representan las personas mayores en la
vida ciudadana como generadoras de
bienestar.

- Euskadiko ekimen lagunkoien sare bat
sortzea.

- Generar una red de iniciativas de
amigabilidad en Euskadi.

Ildo horretatik, Elgoibarko Udalak
“Euskadi Lagunkoia” Proiektuarekin bat
egiteko proposamena aztertu da. Hala,
kontuan izan behar da proiektu hau gure
herriko adineko pertsonentzat
estrategikoa bada ere, zuzenean
eragiten diola Elgoibarko herriari.

Vista la propuesta de adhesión del
Ayuntamiento de Elgoibar al Proyecto
“Euskadi Lagunkoia” y considerando
que es un proyecto estratégico para las
personas mayores de nuestra localidad
pero que repercute directamente a toda
la población de Elgoibar.

Horiek horrela, proiektuarekin bat
egiteko proposamenarekiko adostasuna
adierazteko, Pertsonen Batzordeak
Udalaren Osoko Bilkurari proposatzen
dio ondorengo **AKORDIOAK** har ditzala:

Visto lo que antecede y mostrando la
conformidad con la propuesta de
adhesión, la Comisión de Personas
propone que por parte del Pleno de la
Corporación se adopten los siguientes



ACUERDOS:

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu duen “Euskadi Lagunkoia” proiektuarekin bat egitea.

Bigarrena.- Alkate andreari eskumena ematea proiektuari atxikitzeko agiria sina dezan, eta horretarako beharrezkoak diren Akordio guztiak har ditzan.

Hirugarrena.- Akordio hau Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari jakinaraztea.”

EH Bildu Elgoibar Udal Taldeko Bozeramailea den Ibarzabal jaunak dio proposamenaren alde bozkatuko dutela, baina taldearen arrazoiak azaltzea nahi dutela.

Kontutan harturik hurbildu diren herritar guztiek ez dutela euskaraz ulertzen eta itzulpen zerbitzurik ez dagoenez, nire azalpenak euskaraz eta erdaraz egingo ditut, nahiz eta interbentzioak luzatuko diren.

EH bilduk bat egiten du “Euskadi lagunkoia” proiektuarekin bat egiteko proposamenarekin.

Eta bat egiten dugu ados gaudelako proiektuaren helburu nagusiarekin: Herritarren eta batez ere adinekoen bizi kalitatea hobetzearekin, eta baita ere ados gaudelako planteatzen den metodologia parte hartzailearekin bai herriaren diagnostikoa egitko orduan baita ere plangintza egiterakoan.

Beraz Eh Bildutik prest gaude ellkarlanerako, garrantzia haundia emanaz proiektuaren bi momento

Primero.- Adherirse al Proyecto “Euskadi Lagunkoia” impulsado por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco.

Segundo.- Facultar a la Sra. Alcaldesa para que firme el documento de adhesión y adopte cuantos Acuerdos sean necesarios para tal fin..

Tercero.- Notificar el presente Acuerdo al Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco.”

El portavoz del Grupo Municipal EH Bildu Elgoibar dice que votará a favor de la propuesta, pero que desea exponer las razones de su grupo.

Teniendo en cuenta que la ciudadanía que se ha personado no entiende euskera y no hay servicio de traducción, realizaré mi exposición en euskera y castellano, a pesar de que se van a dilatar las intervenciones.

EH Bildu desea unirse a la propuesta de adhesión al proyecto “Euskadi lagunkoia”.

Y deseamos unirnos a ella, porque estamos de acuerdo con el objetivo principal del proyecto: la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía, y sobre todo, la de las personas mayores. Y también, porque estamos de acuerdo con la metodología participativa que se propone, tanto a la hora de realizar el diagnóstico de la localidad, como a la hora de la planificación.

Por tanto, en EH Bildu estamos dispuestos a colaborar, dando relevancia a dos momentos diferentes



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

ezberdinei, batez ere zein mailataraino gauzatuko den kezkatzen gaituelako:

Alde batetik diagnostiko eta plangintza partekatua egiteko momentuan. Partekatu nahi badu izan ezinbestekoa da herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzea, baina ez nahikoa. Prozesua benetan emankorra eta parte-hartzailea izan dadin beharrezkoa da hitza ematea gizarte eragileei (jubilatuen Etxea, pentsiodunen elkarteak e.a, eragile sozialei ...) prozesuaren hasieratik, prozesu guztia diseinoatzerakoan, ze horrela bermatuko baitugu jendearen benetako parte hartzea eta inplikazioa.

Puntu honen garrantzia azpimarratzeko adibide bat: Orain dela gutxi Udalak prozesu parte hartzaile bat ireki zuen herriko jaien inguruan bere kasaka jaien inguruan mugitu daitezkeen elkarteak eta eragileak kontuan hartu gabe. Bide ezberdinak eskaini zituen ekarpenak eta iritziak jasotzeko (Whatssap, korreo elektronikoa, telefonoa, weba) 12 iritzi edo ekarpen besterik ez ziren jaso. Pentsatzen dugu prozesu parte hartzaile hauek, hasiera hasieratik ez baldin ba dira herriko eragileekin partekatzen, sarritan ez dutela behar duten emaitza ematen.

Bigarren momentua da adostutako plangintza praktikara eraman behar denean. Eh Bildutik garbi daukagu Udalaren lehentasunetako bat izan behar duela bitarteko nahikoak eskaintzea adostutako plangintza gauzatzeko eta, sarritan gertatzen den bezala, egitasmoak paperean ez geratzeko.

Proiektu hau benetan eraginkorra izan dadin, hori ere bermatu behar den proiektu bat da.

del proyecto, ya que nos preocupa hasta qué punto se va a desarrollar.

Por un lado, al momento en el que se van a realizar el diagnóstico y la planificación compartidas. Si se desea compartir es indispensable recoger las opiniones y aportaciones de la ciudadanía, pero no suficiente. Para que el proceso sea verdaderamente fructífero y participativo es preciso dar voz a los agentes sociales (Hogar de las Personas Jubiladas, asociaciones de pensionistas, agentes sociales,...) desde el inicio del proceso, a la hora de diseñar todo el proceso, ya que así garantizaremos la verdadera participación e implicación de la gente.

Un ejemplo para remarcar la relevancia de este punto: hace poco, el Ayuntamiento puso en marcha por su cuenta un proceso participativo sobre las fiestas de la localidad, sin tener en cuenta a los agentes y asociaciones que se mueven en ese entorno. Se ofrecieron diversas vías para recoger las aportaciones y las opiniones (Whatssapp, correo electrónico, teléfono, sitio web). Solo se recibieron 12 opiniones. Consideramos que si estos procesos participativos no se comparten desde su inicio con los agentes, no dan los resultados debidos.

El segundo momento se da cuando hay que llevar a la práctica la planificación acordada. Desde EH Bildu tenemos claro que debe ser una de las prioridades de este Ayuntamiento ofrecer los medios suficientes para llevar a cabo la planificación consensuada y para que los proyectos no queden en papel mojado, tal y como sucede frecuentemente.

Para que este proyecto sea verdaderamente efectivo, también hay que garantizarlo.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Alkate andreak dio Euskadi Lagunkoia sare bat dela eta helburu batzuk dituela.

La Sra. Alcaldesa comenta que Euskadi Lagunkoia es una red y cuenta con diferentes objetivos.

Euskadi Lagunkoia proiektuaren helburua da herritarren partaidetzako prozesuak sortzea Euskadi Lagunkoia lankidetzaz hitzarmenarekin bat egin dezaketen taldeekin.

El objetivo de Euskadi Lagunkoia es, la creación de procesos de participación ciudadana, con los diversos grupos que puedan incorporarse a este convenio de colaboración Euskadi Lagunkoia.

Sare bat da, eta bertan Elgoibar Lagunkoiarekin parte hartu nahi dugu.

Se trata de una red a la que pretendemos adherirnos como Elgoibar Lagunkoia.

Beste helburu batzuk dira udalaren eskumenekoak diren arloetan aldaketak egiteko laguntza ematea, herritarren bizi kalitatea hobetzeko, adineko pertsonen eguneroko bizimoduan duten potentzialtasuna aprobetxatzea eta Euskadin ekimen lagunkoien sare bat sortzea.

Otros objetivos son los de facilitar la introducción de cambios en las diferentes áreas competenciales del ayuntamiento, a fin de mejorar la calidad de vida de los ciudadanos, de aprovechar el potencial que representan las personas mayores en la vida cotidiana y generar una red de iniciativas de amigabilidad en Euskadi.

Ekimen sare hau Euskadi osoan dago, eta badira hainbat udalerrri, dagoeneko sare honekin bat egin dutenak.

Esta red de iniciativas se da en todo Euskadi, y existen varios municipios adheridos a esta red.

Lan organigrama 5 urterako ikuspegiarekin planteatzen da, eta eman beharreko urratsak ondorengoak dira:

El organigrama de trabajo se plantea a 5 años vista, y los pasos a seguir serían los siguientes:

Diagnosia Matia Fundazioaren laguntzarekin egingo da. Matia dinamizatzailea izango da, eta diagnosian atal soziodemografikoak islatuko dira, baita bertan parte hartu duten eragileak ere. Horretaz gain, bideratzen ari diren programa guztiak jasoko dira.

El diagnóstico se llevará a cabo con la colaboración de la Fundación Matía, que juega el papel de dinamizador, y en el que se recogerán aspectos sociodemográficos, así como los agentes que intervienen en él, y todos los programas que se están desarrollando.

Hala hola, 60+ programa, oroimen programak, helduentzako eta haurrentzako musikoterapia, desgaitasuna, gizarteratzea, eta abar.

Aquí se incluyen los programas de 60+, de memoria, de musicoterapia para mayores y niños, discapacidad, inserción, y otras más.

Horretaz gain, hainbat lantalde sortu nahi dira boluntarioekin, udalaren

Se trata también de crear una serie de grupos de trabajo con personas



lagunkoitasunari buruz eztabaidatzeko eta ideiak eta proposamenak jasotzeko.

Hainbat lantalde sor daitezke, gai desberdinen arabera. Hala, galdetegi bat egingo da lagunkoitasunari buruz, eta 16 urtetik gorako pertsonen helaraziko zaie. Galdetegia zabaldu eta jaso egingo da.

Inkesta horien azterketa egingo da.

Beste atal bat ekintzak inplementatzeari dagokiona izango da.

Lantalde horietan guztietan dauden planteamenduak aztertuko dira, eta ekintzak inplementatuko dira, aire zabaleko guneetan, eraikinetan, etxebizitzetan, partaidetzaren alorrean eta gizarte ehunduran, herritartasunean eta enpleguan, inklusioan, komunikazioan eta informazioan, gizarte zerbitzuetan eta osasunean.

Azkenik, ebaluatu egingo da; eta ebaluazio hori ere Matia Fundazioak egingo du.

Partaidetzari buruzko adierazleak egongo dira, eta proiektuaren faseak edo etapak kontuan izanik, hainbat gauza egingo dira.

Adierazle horiek ondorengoak izango dira helburuen arabera: galdetegia; ebaluazioa; galdetegiak zabaltea eta jasotzea ikastetxeetan, liburutegian, kiroldegietan, e.a.

Hau da, hemen adineko pertsona guztiak inplikatzeko dira, baita adinekoak ez diren pertsona guztiak ere.

Sare parte-hartzailea da, Elgoibarko lagunkoitasunaren esparruan egin

voluntarias, para debatir sobre el grado de amigabilidad del municipio, y recoger ideas y propuestas.

Se pueden formar diversos grupos de trabajo, en función de diversa temática. Se hará un cuestionario sobre amigabilidad, que se pasará a las personas mayores de 16 años, y se procederá a su difusión y recogida.

Se llevará a cabo un análisis de esas encuestas.

Otro punto, será el de implementación de acciones.

En todos esos grupos de trabajo, se llevarán los planteamientos existentes y se implementan las acciones, en áreas tales como espacios al aire libre y edificios, en vivienda, en participación y tejido social, en ciudadanía y empleo, en respeto, en inclusión, en comunicación e información, en servicios sociales y salud.

Finalmente se evalúa, y esa evaluación viene dada también por la Fundación Matía.

Existirán unos indicadores de participación, y según las fases o etapas del proyecto, pues se harán una serie de cosas.

Esos indicadores serán, según objetivos, cuestionario evaluación, difusión y recogida de cuestionarios, en centros escolares, biblioteca, polideportivos, etc.

Es decir, que aquí se implica a todas las personas mayores y también a todas las personas no mayores.

Se trata de una red participativa que pretende establecer acciones que



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

daitezkeen ekintzak ezartzeko xedea duena.

puedan realizarse en el ámbito de la amigabilidad de Elgoibar.

Honek itzulketa bat izango du; izan ere, denbora jakin bat iraungo duen prozesu bat da, prozesu dinamikoei dagokien ezaugarria duena. Hala, behin prozesua bukatu ostean, berriro ere, hasi egingo da, eta etengabe jarraituko du.

Esto tendrá una vuelta, de forma que se trata de un proceso que durará cierto tiempo y que tiene la característica de ser un proceso dinámico, de manera que, una vez finalizado, vuelve a empezar, prosiguiendo de manera continua.

Prozesu parte-hartzailea da, borondatezkoa dena eta mundu guztiarentzat zabalik dagoena.

Se trata de un proceso que es participativo, que es voluntario y abierto a todo el mundo.

Horrexegatik, proiektu honetan parte hartuko duten Elgoibarko bizilagunen sarea izango da, Alkatetzak kudeatuko duena, Udaletako sail guztietatik pasatu behar bada ere.

Por ello, se trata de una red de la ciudadanía de Elgoibar que vaya a participar en este proyecto, que se gestionará desde la Alcaldía, a pesar de que tenga que pasar por todos los departamentos del Ayuntamiento.

Eta hemezortziak eta berrogeita hamar minutu direnean, Udal Talde Sozialistaren bozeramaile den Nerea Alustiza andrea bilerara bertaratu da.

Siendo las dieciocho horas y cincuenta minutos, la Portavoz del Grupo Municipal Socialista D^a Nerea Alustiza, se incorpora a la sesión.

Bozketa egin ondoren, proposamena aho batez onartu, eta akordio bilakatu da.

Sometida a votación la propuesta, la misma es aprobada por unanimidad, elevándola a la categoría de acuerdo.

LAUGARRENA.- UDALAREN ETA UDAL KIROL PATRONATUAREN 2017KO EKITALDIARI DAGOKION AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

CUARTO.- DAR CUENTA DE LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017 DEL AYUNTAMIENTO Y DEL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES.-

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak Alkatetzak Udalaren 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzeari buruz eman duen Ebazpenaren berri izan du:

El Pleno de la Corporación se da por enterado de la siguiente Resolución de Alcaldía, relativa a la aprobación de la liquidación del presupuesto de 2017 del Ayuntamiento.

“ALKATEAREN EBAZPENA, 159 ZENBAKIDUNA

“RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA N° 159

Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak

Visto el informe elaborado por la Interventora con motivo del presupuesto



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

de 2017 de este Ayuntamiento, y examinados los documentos de dicha liquidación, encontrándolos conformes, en uso de las atribuciones encomendadas en el artículo 49.3 de la Norma Foral 21/2003 de Presupuestos de las Entidades Locales de Gipuzkoa

EBATZI DUT**RESUELVO**

Lehenengoa.- Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

Primero.- Proceder a la aprobación de la liquidación del presupuesto de 2017 de este Ayuntamiento, de acuerdo con el siguiente resumen:

| DIRUZAINZTA GERAKINA | REMANENTE DE TESORERÍA |
|---|------------------------|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n: Existencias liquidas de tesorería a 31-12-2017 | 8.139.181,50 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n: Saldos pendientes de cobro a 31-12-2017 | 2.190.552,96 |
| Aurrekontuko zordunak: | 2.192.921,37 |
| Acreedores presupuestarios: | |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 4,01 |
| Acreedores extrapresupuestarios: | |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | 2.372,42 |
| Cobros pendientes de aplicación: | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n: Saldos pendientes de pago a 31-12-2017 | 1.6149.430,32 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 941.363,45 |
| Acreedores del presupuesto de gastos: | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 708.066,87 |
| Acreedores extrapresupuestarios: | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | 0 |
| Pagos pendientes de aplicación: | |
| 4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3): Total remanente de tesorería (1+2+3): | 8.680.304,14 |
| 5.- Saldo kobragaitzak: Saldos de dudoso cobro | 513.357,60 |
| 6.- Gehiegizko finantzaketa lotua: Exceso de financiación afectada: | 931.006,41 |
| 7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6): Remanente de tesorería para gastos generales (4-5-6): | 7.235.940,13 |

AURREKONTUKO EMAITZA**RESULTADO PRESUPUESTARIO**

| | |
|---|--------------|
| 1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | 2.368.584,04 |
|---|--------------|



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

| | |
|--|---------------------|
| Resultado de las operaciones del presupuesto de este año | |
| 2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: Resultado de las operaciones de los presupuestos liquidados en ejercicios anteriores: | -145.612,03 |
| 3.- Doikuntzak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: Ajustes por obligaciones financiadas mediante el remanente de crédito: | 569.183,61 |
| 4.- Doikuntzak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: Ajustes por desvíos de gastos con financiación afectada: | -1.074.995,75 |
| 5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4): Resultado presupuestario (1+2+3+4) | 1.717.159,87 |

KREDITU GERAKINAK**REMANENTES DE CRÉDITO**

| | |
|---|--------------|
| 1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: Remanentes de crédito susceptibles de ser incorporados: | 1.790.649,34 |
| 2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: Remanentes de crédito que no pueden ser incorporados: | 595.653,15 |
| 3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2): Total remanentes de crédito (1+2): | 2.386.302,49 |

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Segundo.- Remitir a la Diputación Foral de Gipuzkoa una copia del expediente, en cumplimiento de lo establecido en el art. 49.5 de la antedicha Norma Foral.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Tercero.- Dar cuenta de este decreto al Pleno Municipal, en la siguiente sesión que celebre.”

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak Lehendakariak Udal Kirol Patronatuaren 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzeari buruz eman duen Ebazpenaren berri izan du:

El Pleno de la Corporación se da por enterado de la siguiente Resolución de Presidencia, relativa a la aprobación de la liquidación del presupuesto de 2017 del Patronado Municipal de Deportes.

Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenez baliatuta, honako hau

Examinado el informe realizado por la Interventora sobre la liquidación del presupuesto de este Ayuntamiento correspondiente a 2016, así como la documentación obrante en el mismo, encontrándola conforme, y en uso de las atribuciones conferidas en el artículo 49.3 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, relativa a los Presupuestos de las Entidades Locales



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa, ondorengo laburpenaren arabera, onartzea:

RESUELVO

Primero.- Proceder a la aprobación de la liquidación del presupuesto correspondiente a 2016, de acuerdo con el siguiente resumen:

DIRUZAINZAKO GERAKINA**REMANENTE DE TESORERÍA**

| | |
|---|------------|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n / Fondos líquidos de tesorería a 31-12-2017: | 201.991,79 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n / Saldos pendientes de cobro a 31-12-2017: | 11.247,31 |
| Aurrekontuko zordunak / Deudores presupuestarios: | 10.897,33 |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak / Deudores extrapresupuestarios: | 349,98 |
| Aplikatu gabeko kobrantzak / Cobros pendientes de aplicación: | 0,00 |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n / Saldos pendientes de pago: | 85.802,60 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak / Acreedores presupuestarios: | 67.624,78 |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak / Acreedores extrapresupuestarios: | 18.177,82 |
| Aplikatu gabeko ordainketak / Pagos pendientes de aplicación: | 0,00 |
| 4.- Diruzaintzako gerakina guztira / Total remanente de tesorería (1+2+3): | 127.436,50 |
| 5.- Saldo kobragaitzak / Saldos de dudoso cobro: | 0,00 |
| 6.- Gehiegizko finantzaketa lotua / Exceso de financiación afectada: | 0,00 |
| 7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina / Remanente de tesorería para gastos (4-5-6): | 127.436,50 |

AURREKONTUKO EMAITZA**RESULTADO PRESUPUESTARIO**

| | |
|--|-----------|
| 1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza / Resultado de las operaciones correspondientes al presente presupuesto: | 10.009,88 |
| 2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza / Resultado de las operaciones correspondientes a presupuestos liquidados en ejercicios anteriores: | 0,00 |
| 3.- Doikuntzak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik / Ajustes por obligaciones financiadas a través del remanente de tesorería: | 41.749,14 |



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

| | |
|---|-----------|
| 4.- Doikuntzak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik / Ajustes por desvíos de gastos con financiación afectada: | 0,00 |
| 5.- Aurrekontu emaitza / Resultado presupuestario (1+2+3+4): | 51.759,02 |

KREDITU GERAKINAK**REMANENTES DE CRÉDITO**

| | |
|--|------|
| 1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak / Remanentes de créditos susceptibles de ser incorporados: | 0,00 |
| 2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak / Remanentes de crédito que no pueden ser incorporados: | 0,00 |
| 3.- Kreditu gerakinak, guztira / Total de remanentes de crédito: (1+2): | 0,00 |

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazioari buruzko espedientearen kopia bidaltzea, arestian aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotzen duena betetzeko.

Segundo.- Remitir copia del expediente de liquidación a la Diputación Foral de Gipuzkoa, en cumplimiento de lo recogido en el artículo 49.5 de la antedicha Norma Foral.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea egingo duen hurrengo bileran.”

Tercero.- Dar cuenta de este decreto al Pleno de la Corporación, en la siguiente sesión que celebre.”

BOSGARRENA.- UDALLEKO 2018 EKITALDIKO AURREKONTUA ALDATZEKO, 2/2018 ZENBAKIA DUEN ESPEDIENTEA ONARTZEA.-

QUINTO.- APROBAR EL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 2/2018 DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2018 DEL AYUNTAMIENTO.-

Aho batez onartu eta erabaki bihurtu da, Udal Kudeaketarako Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

Udal honen aurtengo Aurrekontuaren baitan, aurrekontuko partiden arteko transferentzien bitartez Kredituak Aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu da.

Visto el expediente de Modificación de Créditos que se instruye mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos dentro del Presupuesto corriente de este Ayuntamiento.

Horretaz gain, Ogasun Informazio-batzordeko Buruak egin duen proposamena eta agiri horretan egin diren gainerako txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduketak

Examinada la propuesta formulada por la Presidenta de la Comisión Informativa de Hacienda así como los informes, certificaciones y demás actuaciones practicadas en dicho documento,



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

aztertu dira. Horren harira, kontuan izan behar da adierazitako aldaketa Aurrekontuaren bilakaera arintzeko mesedegarria izango dela eta espediente horren izapidetzea bat datorrela indarrean dagoen eta ezar daitekeen lege-araudiarekin. Horiek horrela, Batzorde honek bidezkoztat jotzen du kredituen gehikuntzaren atalean (altak), nahiz kredituen transferentzien atalean (baja), 114.256,00 euroko zenbatekoa duen espedientea onartzea, proposamen horretan ageri diren Gastuen aurrekontuko partiden xehakapen berarekin.

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, Batzorde honek Udalbatzarraren Osokoari honako AKORDIOA har dezala proposatzen dio:

Lehenengoa.- Berariaz ageri den proposamenean jasotzen diren Udal honetako Gastuen aurrekontuko partiden arteko transferentzia bidez, Kredituak Aldatzeko espedientea onartzea, partiden araberako ondoko laburpenari jarraiki:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

teniendo en cuenta que la expresada modificación ha de contribuir a la agilización del desarrollo del Presupuesto y que la instrucción de dicho expediente está ajustada a la normativa legal vigente que le es de aplicación, esta Comisión estima procedente su aprobación por el órgano competente por su importe de 114.256,00 euros tanto en incrementos de créditos (altas) como en transferencias de créditos (bajas) y con igual detalle de partidas presupuestarias de Gasto que figuran en dicha propuesta.

A la vista de lo que antecede esta Comisión propone que por parte del Pleno se adopte el siguiente ACUERDO:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Partidas.

Partidas de gastos cuyos créditos se transfieren (bajas)

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---------------------------|---|--------------------|------------|--------------------|
| 1 0701.481.231.50.02 2018 | IKASTETXEEI DIRULAGUNTZAK | 27.000,00 | 14.956,00 | 12.044,00 |
| 1 0102.626.925.00.01 2018 | HAZEN HERRITARRENTZAKO KUTXAZAINA | 18.000,00 | 7.300,00 | 10.700,00 |
| 1 0102.625.925.01.02 2018 | ILARAK KUDEATZEKO SISTEMA | 18.000,00 | 18.000,00 | 0,00 |

OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun aktaIDAZKARITZA
SECRETARIA

| | | | | |
|---------------------------|-----------------------------------|-------------------|-------------------|-------------------|
| 1 0601.625.337.20.02 2018 | GAZTERIAKO INBERTSIOAK | 6.000,00 | 4.000,00 | 2.000,00 |
| 1 0401.622.151.00.01 2018 | HIGIEZINEN KONPONKETAK | 200.000,00 | 70.000,00 | 130.000,00 |
| 1 0202.481.334.00.15 2018 | DEBEGESA DOLMENEN IBILBIDEA | 8.000,00 | 7.000,00 | 1.000,00 |
| GUZTIRA | | 277.000,00 | 121.256,00 | 155.744,00 |

Gehituko diren kredituak biltzen dituzten
gastuen partidak (altak)Partidas de gastos cuyos créditos se
incrementan (altas)

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---------------------------|--|-----------------------|-------------------|-----------------------|
| 1 0701.481.327.00.01 2018 | IKASTOLARI DIRU- LAGUNTZA | 0,00 | 6.000,00 | 6.000,00 |
| 1 0701.481.327.00.02 2018 | INSTITUTUTARI DIRU- LAGUNTZA | 0,00 | 5.534,00 | 5.534,00 |
| 1 0701.481.327.00.03 2018 | HERRI ESKOLARI DIRU- LAGUNTZA | 0,00 | 1.500,00 | 1.500,00 |
| 1 0701.481.327.00.04 2018 | MEKARI DIRU-LAGUNTZA | 0,00 | 1.650,00 | 1.650,00 |
| 1 0701.481.327.00.05 2018 | IMH-RI DIRULAGUNTZA | 0,00 | 272,00 | 272,00 |
| 1 0102.205.925.00.01 2018 | HAZ-EKOKAJEROAREN MANTENUA | 0,00 | 3.600,00 | 3.600,00 |
| 1 0102.626.920.00.01 2018 | INFORMAZIO- PROZESUETARAKO EKIPOAK | 10.000,00 | 21.700,00 | 31.700,00 |
| 1 0601.227.337.20.07 2018 | EKINTZAK.-HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO | 33.000,00 | 4.000,00 | 37.000,00 |
| 1 0401.622.337.00.02 2018 | ENTSEGU LOKALAK | 0,00 | 70.000,00 | 70.000,00 |
| 1 0202.417.334.00.01 2018 | DOLMENEN IBILBIDEA. SORALUZE | 0,00 | 7.000,00 | 7.000,00 |
| GUZTIRA | | 43.000,00 | 121.256,00 | 164.256,00 |

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari
Ofizialean eta iragarki - taula ofizialetan
argitaraturiko iragarkien bidez,**Segundo.-** Someter el expediente al
trámite de exposición pública durante el
plazo de quince días mediante anuncios



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

hamabost egunez espedientea jendaurrean jartzea.

que se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en los tablones oficiales.

Hirugarrena.- Inongo erreklamaziorik aurkeztu ezean, aipaturiko espedientea behin betiko onartuko dela uste izango da.”

Tercero.- En el supuesto de que no se presentara ninguna reclamación, se entenderá aprobado definitivamente dicho expediente.”

SEIGARRENA.- UDALEKO 2018 EKITALDIKO AURREKONTUA ALDATZEKO 1/2018 ETA 3/2018, ZENBAKIA DUTEN ESPEDIENTEEN BERRI EMATEA.-

SEXTO.- DAR CUENTA DE LOS EXPEDIENTES DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 1/2018 Y 3/2018, DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2018 DEL AYUNTAMIENTO.-

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak Alkateak eman dituen ondorengo Ebazpenen berri izan du:

El Pleno de la Corporación se da por enterado de las siguientes Resoluciones de Alcaldía:

“ALKATEAREN EBAZPENA, 0163 ZENBAKIDUNA

“RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA NÚMERO 0163

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2018-KALD-000001-00 zenbakiduna,

Visto el expediente de modificación de créditos del presupuesto de este Ayuntamiento, en la modalidad de incorporación de créditos con nº 2018-KALD-000001-00,

Ikusita Kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak,

Visto, asimismo, el informe y certificaciones de la interventora,

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuta, honako hau

En uso de las facultades que me son concedidas para la incorporación de créditos, mediante el artículo 32.6. de la Norma Foral 21/2003 de Presupuestos de las Entidades Locales

EBATZI DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2018-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partiden araberako xehetasunarekin, eta kapituluaren araberako ondorengo laburpenari jarraiki:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos del presupuesto de este Ayuntamiento, en la modalidad de incorporación de créditos con nº 2018-KALD-000001-00, con el mismo detalle por partidas que figura en la propuesta, y de acuerdo con el siguiente resumen por partidas

GASTUAK

GASTOS



| Kapitulua / Capítulos | Izena / Denominación | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|----------------------|
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN / GASTOS EN BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS | 196.894,72 |
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK / TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 26.594,26 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK / INVERSIONES REALES | 1.325.177,54 |
| TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA TOTAL CRÉDITOS INCORPORADOS | | 1.548.666,52 |

FINANTZAKETA**FINANCIACIÓN**

| Kapitulua / Capítulos | Izena / Denominación | Zenbatekoa / Importe |
|--|--|----------------------|
| 8 (SARRERAK / INGRESOS) | FINANTZA AKTIBOAK ACTIVOS FINANCIEROS | 1.548.666,52 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA / TOTAL FINANCIACIÓN | | 1.548.666,52 |

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmoa eta bete beharrekoa denez, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.”

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo sin la adopción de ulteriores trámites, procede que la modificación de créditos aprobada sea contabilizada con carácter inmediato por parte de los Servicios de Intervención.”

**“ALKATEAREN EBAZPENA, 0164
ZENBAKIDUNA**

Aurreko urteko aurrekontuko kreditu gerakinak txertatu izanaren ondorioz Elgoibarko Udalaren 2018ko Aurrekontuan izapidetutako kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu.

Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena eta espedientean egindako gainerako jarduketak ere aztertu ditugu.

Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 32.6. artikuluan kreditu txertaketa onesteko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT**“RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA
NÚMERO 0164**

Visto el expediente de modificación de créditos instruido en el Presupuesto de 2018 del Ayuntamiento de Elgoibar por incorporación de remanentes de crédito del presupuesto del año anterior.

Visto el informe favorable del Interventor de Fondos y demás actuaciones practicadas en el expediente.

En el ejercicio de las competencias que me atribuye el art. 32.6 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa, para la aprobación de la incorporación de créditos vengo en

RESOLVER



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Lehenengoa.- Elgoibarko Udalaren 2018ko Aurrekontuan aurreko ekitaldiko aurrekontutik datozen kreditu gehigarrien bidez, kredituak aldatzeko 3/2018 zenbakidun espediente onestea, txertaketa horrek eragindako partiden laburpenaren arabera.

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos nº 3/2018 por créditos adicionales al Presupuesto de 2018 del Ayuntamiento de Elgoibar procedentes del presupuesto del ejercicio anterior conforme al siguiente resumen por partidas afectados por dicha incorporación.

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---------------------------|-------------------------------|-----------|-----------|----------------|
| | | Egunoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0104.471.422.00.01 2018 | IMH-RI DIRULAGUNTZA | 40.000,00 | 20.000,00 | 60.000,00 |
| 1 0204.227.335.00.04 2018 | EUSKARAREN ALDEKO KANPAINA | 34.000,00 | 6.000,00 | 40.000,00 |
| | | | | |
| GUZTIRA | | 74.000,00 | 26.000,00 | 100.000,00 |

2018ko aurrekontuko txertaketaren finantzaketa

kreditu

Financiación de la incorporación de créditos del presupuesto de 2018.

| Kod. | Sarrerren partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|-----------------------------|---------------------------|---|---------------|
| a | 2 0100.870.000.00.01 2018 | GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA | 26.000 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | | | 26.000 |

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta bete beharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako aldaketa Fondoen Kontu-hartzailletza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea, gastuen zein sarrerren atalean.

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los servicios de Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación aprobada tanto en gastos como en ingresos, con efectos inmediatos.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Hirugarrena.- Udalbatzarrari egingo duen lehenengo bilkuran akordio honen berri ematea.”

ZAZPIGARRENA.- PENTSIONEN INGURUAN, “DUINTASUNA ELKARTEA”K PROPOSATUTA, EH BILDU ELGOIBARREK, AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

ZORTZIGARREN.- PENTSIONEN SISTEMA PUBLIKOAREN INGURUAN, EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

EH Bildu Elgoibar Udal Taldeko zinegotzia den Isasmendi andreak dio mozio hau sartu duela pentsiodunen Duintasuna Elkarteak berak ezin duelako egin araudiaren arabera.

Jarraian, mozioaren testua irakurtzen du, eta horrela dio:

“Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen “DUINTASUNA” ELKARTEAK eskatzen du mozio hau azter dadila ELGOIBARKO Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Pentsiodunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen eros ahalmena galtzen ari deal. Esttuko gobernuek egin dituzten ondoz ondoko pentsioen erreformek, PP-K NAHIZ psoc-K, KALTE HANDIA EGIN DIGUTE. Gu gara pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ez dezakegu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzak, elektrikentzat, enpresarientzat,....

Pentsiodun gehienok txirotasun atalasearen azpitik kobratzen dugu, eta

Tercero.- Dar cuenta del presente acuerdo al Pleno en la primera sesión que celebre.”

SÉPTIMO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EH BILDU ELGOIBAR A PROPUESTA DE “DUINTASUNA ELKARTEA” EN RELACIÓN A LAS PENSIONES.-

OCTAVO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EAJ-PNV, EN RELACIÓN AL SISTEMA PÚBLICO DE PENSIONES.-

La concejala del Grupo Municipal EH Bildu Elgoibar Sra. Isasmendi dice que ha presentado esta moción, porque, según el reglamento, no puede presentarla la propia Duintasuna Elkarte.

A continuación, procede a la lectura del texto de la moción:

“Desde la ASOCIACIÓN “DUINTASUNA” de Jubiladas y Pensionistas de Gipuzkoa SOLICITAMOS sea tratada esta MOCIÓN en el Pleno del Ayuntamiento de ELGOIBAR y emplazamos a los Grupos municipales a aprobarla.

Las personas pensionistas llevamos años perdiendo poder adquisitivo en nuestras pensiones. Las sucesivas reformas de pensiones realizadas por los gobiernos del Estado tanto del PP como del PSOE, nos han perjudicado seriamente. Somos nosotras y nosotros, las personas pensionistas, quienes venimos sufriendo recortes, nos cuesta llegar a fin de mes y no podemos en ocasiones ni encender la calefacción mientras para la banca, las eléctricas, los empresarios etc. si hay dinero.

La mayoría de pensionistas cobramos por debajo del umbral de pobreza y tras



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzen azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienez, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25a, pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dituztelako hartzen.

Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitzela, duintasunez bizitzen lagako diguten gutxieneko pentsioak berma dakizkigula. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak, onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumeak direla.

Honengatik guztiarengatik, eta uste dugunez BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela, lehen adierazi dugu beste gaietarako badela dirua, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

1.- Arbuia dezala pentsioen %0'25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.

2.- 1.080€-tako gutxiengo pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun atalasetik irten gaitezen, Euskal Herriari dagokion eran ta Europako Gutun Sozialak ezarria betez, eta hori gauzagarria izango ez den bitartean, eska diezaiola Gasteizeko Jaurlaritzari, aipatu kopurura pentsiodun guztiak hileroko eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela.

3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzaren Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezten.

tantos años de trabajo y cotización, se nos hace cada vez más difícil vivir dignamente los últimos años de nuestras vidas. Todo eso no parece importarles a los políticos pues no toman medidas para paliar esa situación por la que atravesamos casi el 25% de la población, las personas pensionistas.

No es la primera vez que reclamamos se nos tenga en cuenta, se garantice unas pensiones mínimas que nos permitan vivir con dignidad. No podemos dejar pasar por alto que la mayoría de las personas que tienen pensiones bajas son mujeres que sufren un doble castigo admisible.

Por todo ello y entendiendo que es cuestión de VOLUNTAD POLÍTICA pues, como hemos manifestado antes para otras cuestiones si hay dinero, SOLICITAMOS AL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR:

1.- Que rechace la mísera subida de 0'25% de las pensiones y se reclame el mantenimiento del poder adquisitivo de las mismas.

2.- Que se solicite el establecimiento de una pensión mínima de 1.080€ para salir del umbral de la pobreza, según corresponde a la Comunidad Autónoma Vasca y establece la Carta Social Europea y mientras eso no sea posible se reclame al Gobierno de Gasteiz que establezca el complemento necesario para que todas las personas pensionistas lleguen mensualmente a esa cantidad.

3.- Que se establezca un Sistema de Protección y Seguridad Social para la Comunidad Autónoma Vasca que garantice las pensiones públicas y la atención necesaria que necesitan cada vez más la personas mayores.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

4.- Datorren urtean, 2019. Urtean, ezarri beharko litzatekeen jasangarritasun faktorearen ezarpena arbuia dadila, zeinak gure pentsioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.

5.- Bidal diezazkiela Estatuaren Gobernuari eta Gasteizko Jaurlaritzari Udal honek onartu dituen erabakiak.”

EH Bildu Elgoibar Udal Taldeko Bozera mailea den Ibarzabal jaunak dio berari tokatzen zaiola azaltzea EH Bilduren iritzia Duintasuna Elkartearen mozioaren aurrean.

DUINTASUNA elkarteak aurkeztu duen mozioan adierazten da argi eta garbi nola pentsiodun gehienek pobrezia mugaren azpitik kobratzen duten. Datu bat, gaur egun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ia 200.000 lagun pentsioak ez dira gutxienezko soldatara iristen (735 euro tara alegia) eta txarrena da egoerak okerrera egingo duela datozen urteotan Gobernu espainolaren erreformen ondorioz.

Gauzak horrela EH Bildutik behar beharrezkoa ikusten degu euskal pentsio sistema propioa sortzeko urratsak ematen hastea, sistema espainolak ez dituelako bizi baldintza duinak bermatzen eta pentsiodunak pobrezian bizitzera kondenatzen dituelako.

Bizimodu duina bermatzen duten pentsio publiko duinak izateko sistema berria, propioa, behar dugu.

Baina garbi dago ezin dugula sistema propioa eduki arte itxaron pentsiodunek gaur dituzten beharrak asetzeko. Eta garbi dago baita ere Gobernu espainola dela egoera honen erantzule nagusia. Baina Gasteizko Gobernua ezin da

4.- Que se rechace la aplicación del Factor de Sostenibilidad que debería aplicarse el próximo año 2019 y va a suponer un nuevo e importante recorte de las pensiones.

5.- Que se remita al Gobierno del Estado y al Gobierno de Gasteiz los acuerdos adoptados por este Ayuntamiento.”

El Sr. Ibarzabal Portavoz del Grupo Municipal EH Bildu Elgoibar comenta que le toca explicar el posicionamiento de EH Bildu ante la moción de Duintasuna Elkartea.

En la moción presentada por la asociación DUINTASUNA elkartea se expone claramente que la mayoría de los pensionistas cobran por debajo del límite de la pobreza. Un dato: hoy en día, en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa las pensiones de casi 200.000 personas no llegan al salario mínimo (es decir, a 735 euros), y lo peor es que la situación va a degenerar en los próximos años a consecuencia de las reformas del Gobierno español.

Así las cosas, desde EH Bildu consideramos que es indispensable comenzar a dar los pasos para la creación de un sistema vasco propio de pensiones, porque el sistema español no garantiza unas condiciones de vida dignas, y condena a los pensionistas a vivir en la pobreza.

Necesitamos un sistema nuevo, propio, que garantice unas pensiones públicas dignas.

Pero está claro que no podemos esperar a tener un sistema propio para satisfacer las necesidades actuales de los pensionistas. Y también está claro que es el Gobierno español el principal responsable de esta situación. Pero el



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

geldirik geratu berak ere badituelako tresnak eta bitartekoak pentsio duinak bermatzeko.

Gobierno de Gasteiz no puede permanecer parado, porque también tiene herramientas y medios con los que garantizar unas pensiones dignas.

EAJ-PSE gobernuak neurriak har ditzake gutxieneko pentsioak gaur bermatzeko. Eta ez badituzte hartzen ez da ezinezkoa delako, borondate faltagatik baizik edo hobeto esanda bere lehenetasun artean ez dagoelako behar honi erantzutea. Dirua egon badago baina beste gauza batzuetarako.

El gobierno de pnv-PSE puede adoptar medidas con el fin de garantizar actualmente unas pensiones mínimas. Y si no las adoptan no es porque es imposible, sino por falta de voluntad; o mejor dicho, porque entre sus prioridades no se encuentra el responder a esa necesidad. Ya hay dinero, pero para otras cosas.

Horregatik EH Bildutik bat egiten dugu Duintasun Elkarteak aurkeztutako mozioarekin.

Por ello, desde EH Bildu nos adherimos con la moción presentada por Duintasun Elkarteak.

- Ados gaude Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzza Sistema propioaren ezarpena eskatzen denean
- Ados gaude baita ere 1.080 eurotako gutxieneko pentsioa exijitzen denean eta hori gauzagarria ez den bitartean Gasteizko Jaurlaritzari eskatzen zaioenean behar den osagarria ezartzeko
- Eta esan beharrik ere ez dago 0,25eko sasi-igoera ere salatzen dugula eta murrizketa berria ekarriko duen jasangarritasun faktorearen ezarpenaren aurka gaudela.
- Estamos de acuerdo cuando se solicita el establecimiento de un sistema propio de Protección y Seguridad Social en Euskal Herria.
- Asimismo estamos de acuerdo cuando se exige una pensión mínima de 1.080 euros, y también cuando se solicita al Gobierno de Gasteiz que establezca un complemento, mientras lo anterior no sea posible.
- Y no hay que decir que denunciamos la subida ficticia del 0,25, y que estamos en contra de la implantación del factor de sostenibilidad, que originará un nuevo recorte.

EAJ Udal Taldeko Bozeramailea den Zabala andreak dio, pentsioen inguruan bi mozio aurkeztu direla, bata EH Bilduko Bozeramaileak orain defendatu duena, eta bestea hurrengo puntuan

La portavoz del Grupo Municipal PNV, Sra. Zabala, dice que se han presentado dos mociones en torno a las pensiones: una, la que acaba de defender la Portavoz de EH Bildu, y la otra, la que se



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

datorrena eta gure taldeak aurkeztu duena.

Beraz, gure azalpenak bietara ematea baino banak egitea nahiago dut, zeren lehenengo mozioari ezetza emango diogu eta bigarrenari aldeko botoa. Horretarako nahiago dut azalpena gure mozioa irakurri ondoren ematea.

Alkate andreak dio, inoren kontrako ezean, zera egingo dugula, gai zerrendako hurrengo puntuan dagoen mozioa oraintxe bertan irakurri, azalpenak bi mozioei eman, eta azkenik, mozioa biak banaka bozkatu.

Horrela bada, Zabala andreak EAJ Udal Taldeak aurkeztutako mozioa irakurtzen du, eta horrela dio:

“Elgoibarko Udalak, belaunaldien arteko elkartasun-berme eta bizi-baldintza duinak dituen gizarte baten zutoin izango den pentsioen sistema publikoaren defentsan, Estatuko Gobernuari eskatzen dio:

1. Pentsio sistema publiko nahikoa eta iraunkorra bermatu dezala, oinarrituko dena pentsio duin batzuetarako eskubidean, elkartasunaren eta gardentasunaren esparruan, finantzazio-iturri ziturek eutsitakoa, modu horretan pentsio duin eta auresangarriak bermatzeko.

2. Indargabetu dezala, pentsio duinak bermatzeko, 23/2013 Legea, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituen, berrezarrit, pentsioak eguneratzeko formula gisa, KPlari lotuta egotea.

va a exponer en el siguiente punto y ha sido presentada por nuestro grupo.

Por tanto, quiero dar mis explicaciones sobre las dos mociones, porque votaremos en contra de la primera moción, y a favor de la segunda. Para ello, prefiero dar la explicación tras leer nuestra moción.

La Sra. Alcaldesa añade que, si nadie se opone, haremos lo siguiente: proceder en este mismo momento a la lectura de la moción que figura en el siguiente punto del orden del día, dar las explicaciones relativas a las dos mociones, y finalmente, votar individualmente cada moción.

Así, pues la Sra. Zabala procede a dar lectura a la moción presentada por el Grupo Municipal EAJ.

“El Ayuntamiento de Elgoibar, en defensa de un sistema público de pensiones que sea garante de la solidaridad entre generaciones y pilar de una sociedad con condiciones de vida dignas, insta al Gobierno del Estado a:

1. Garantizar un sistema público de pensiones suficiente y sostenible, basado en el derecho a unas pensiones dignas en un marco de solidaridad y transparencia, sostenido por fuentes de financiación seguras, de forma que se garanticen unas pensiones dignas y predecibles.

2. Derogar la Ley 23/2013, de 23 de diciembre, reguladora del Factor de Sostenibilidad y del Índice de Revalorización del Sistema de Pensiones de la Seguridad Social para garantizar pensiones dignas restableciendo la vinculación al IPC como fórmula de actualización de las mismas.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

3. Legez debeka dezala Pentsioen Erreserba Funtsa baliatzea kotizazio-defiziteko egoeretarako, PPren Gobernuak kendutako % 3ko topea berreskuratuz. Helburua da pentsioen sistema publikoaren iraunkortasuneko berme finantzariarako tresna gisa erabiltzen jarraitu ahal izatea.

4. Finantzazio-neurriak hartzea sistemaren diru-sarrerak areagotzeko, arauz kontrako kontratazioaren eta kontratazioko iruzurraren aurka borrokatzeko eta Estatuko aurrekontu orokorretatik etorritako diru-sarreren bidez kotizazioen finantzazioaren aldian aldiko defizitak betetzeko.

5. Gizarte Segurantzako sistemaren gastuei heltzea, kenduz enpresek Gizarte Segurantzaren dute kotizazioko salbuespenak, hobariak eta murrizpenak, hala nola entitate administratiboen kudeaketa-gastuak, finantzatuz Estatuko aurrekontu orokorren bidez zuzenean Gizarte Segurantzaren administrazio-gastuak.

6. 2012ko lan-erreforma indargabetu dezala, buelta emateko enpleguaren kalitatean eta kotizazioen gutxitzean dituen zorigaiztoko ondorioei, arriskua, jartzen baitute pentsioen sistema publikoaren iraunkortasuna. Indargabetu dezala 5/2013 EDLko erretiro aurreratuaren erregulazioa.

7. EAEko pentsiodunen egoera hobetzeko ezinbesteko baldintza denez, ekimenak abiatu ditzala EAERA berehala eskualdatzeko Gizarte Segurantzaren alorreko eskumenak, bat etorritz Gernikako Autonomia Estatutua onartzen duen 3/1979 Lege Organikoko 18.2 artikuluan eta bosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoarekin, haren

3. Prohibir por ley la libre disposición del Fondo de Reserva de las Pensiones para situaciones de déficit de cotizaciones, recuperando el tope del 3 % eliminado por el Gobierno del PP, a fin de que pueda seguir siendo utilizado como mecanismo de garantía financiera de sostenibilidad del sistema público de pensiones.

4. Adoptar medidas de financiación destinadas a aumentar los ingresos del sistema, a la lucha contra la contratación irregular y el fraude en la contratación, así como a completar los eventuales déficits de financiación de las cotizaciones, mediante ingresos provenientes de los presupuestos generales del Estado.

5. Actuar sobre los gastos del sistema de Seguridad Social, eliminando las exenciones, bonificaciones y reducciones de la cotización de las empresas en la Seguridad Social, así como los gastos de gestión de las entidades administrativas, financiando directamente desde los presupuestos generales del Estado los gastos de administración de la Seguridad Social.

6. Derogar la reforma laboral del 2012, al objeto de revertir sus nefastas consecuencias para la calidad del empleo y el descenso de las cotizaciones, que ponen en riesgo la sostenibilidad del sistema público de pensiones. Derogar la regulación de la jubilación anticipada del RDL 5/2013.

7. Dado que se trata de una condición imprescindible para mejorar la situación de las personas pensionistas de la CAV, iniciar las actuaciones conducentes a la inmediata transferencia a la CAV de las competencias en materia de Seguridad Social, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.2 y en la disposición transitoria quinta de la Ley Orgánica



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

izaera bateratuaren eta elkartasun-printzipioaren errespetuaren baitan.”

3/1979, que aprueba el Estatuto de Autonomía de Gernika, dentro de su carácter unitario y del respeto al principio de solidaridad”.

Ondoren Zabala andreak EAJ Taldeko azalpena eman du.

A continuación, la Sra. Zabala da la explicación correspondiente al grupo EAJ.

Guk aurkeztu dugun mozioa Eusko Legebiltzarrean onartua izan da, Alderdi Popularra izan ezik, beste alderdi politiko guztien oniritziarekin.

La moción que hemos presentado ha sido aprobada en el Parlamento Vasco. A excepción del Partido Popular ha contado con el visto bueno del resto de los partidos políticos.

Pentsatzen dugu guk aurkeztu dugun mozioa ambiziosoagoa eta exigenteagoa dela, Duintasunak aurkeztu duena baino.

Consideramos que la moción que hemos presentado es más ambiciosa y exigente que la que ha presentado Duintasuna.

Duintasunak aurkeztu duen mozioaren bigarren puntuan Europako Gutun Sozialak ezarria betez, 1.080 €-tako gutxiengo pentsioa ezartzeko exigentzia dago.

En el segundo punto de la moción presentada por Duintasuna, figura la exigencia de establecer una pensión mínima de 1.08 €, en cumplimiento de la Carta Social Europea.

Exijentziarekin ados gaude, baina ez Eusko Jaurlaritzari eskatzearekin, pentsioen kompetentzia, gaur egun, Estatuarena delako, eta beraz, beste batek ez duelako zertan karga hori asumitu beharrik.

Estamos de acuerdo con la exigencia, pero no con que se pida al Gobierno Vasco; porque, hoy en día, la competencia corresponde al Estado, y por tanto, no debe ser otro quien asuma esa carga.

Konpatibilitate arauaren urraketa bat izan daitekeelako, segurtasun juridiko eza daukalako, parte probisional bat izango zelako.

Porque puede suponer un quebranto de la norma de compatibilidad, ya que adolece de seguridad jurídica, al tratarse de una parte provisional.

Konponbideak behin betikoa behar du izan.

La solución, pues, debe ser definitiva.

Bestalde, ikusi beharko litzateke nondik aterako ziren horretarako beharrezkoak diren baliabideak.

Por otro lado, debería mirarse de donde saldrían los recursos necesarios para ello.

EH Bilduko bozeramaileak esan du, egon badaudela baliabideak, noski baietz, baina hori suma 0 da, hau da, baliabideak helburu honetara

El portavoz de EH Bildu ha dicho que sí hay recursos. Por supuesto que sí, pero eso es una suma 0, es decir, si destinamos los recursos a ese fin,



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

destinatzen baditugu, beste nonbaitetik kendu beharko dira, hezkuntzatik, osasunetik, auskalo nondik.

deberán restarse de otros sitios: educación, sanidad, vaya usted a saber de dónde.

Gutziz ados gaude EH Bilduko Bozera maileak esan duenarekin, hau da, Euskal Pentsio Sistema propioa behar dugula, sistema berri bat, propioa, pentsio publiko duinak bermatu behar direla, et Estatua dela erantzulea, gutziz ados.

Estamos totalmente de acuerdo con lo que ha expuesto el portavoz de EH Bildu, es decir, estamos totalmente de acuerdo con que necesitamos un Sistema Vasco, propio, de Pensiones, que deben garantizarse unas pensiones públicas dignas, y que el Estado es el responsable.

Guk pentsatzen dugu pentsio sistema publikoa, ongizatearen bizkar hezurra dela, eta izaera publikoa eta nahitaezkoa da, bai bere finantzaketa bai bere kudeaketa.

Consideramos que el sistema público de pensiones vertebró el bienestar, y que es indispensable su carácter público, su financiación y su gestión.

Izan behar da prebisiblea, eta izan behar da ez regresiboa, eta horregatik ados gaude egokitu beharra dagoela, kontsolidatu behar dugula, eta bideragarria izan behar dela etorkizuneko belaunaldientzat.

Hay que ser previsible, y hay que ser no regresivo, y por ello, estamos de acuerdo en que debe haber adaptaciones, que debemos consolidar, y que hay que ser viable para las generaciones del futuro.

Konsziente gara gaur egun arazo estruktural batzuk duadela, eta direla demografiaren tasa ez dela lagun, eta bizitza itxaropena gora doala.

Somos conscientes que hoy en día hay problemas estructurales, y que la tasa demográfica no nos es favorable, y que la esperanza de vida va creciendo.

Beraz numeroak ez dute ematen.

Así pues, los números no dan.

Horretaz gain soldaten devaluazioa kontutan izan behar da.

Además, debe tenerse en cuenta la devaluación salarial.

Desoreka estrukturala da, eta sistemaren sostengarritasunerako aldaketa estrukturalak onartu beharra dago.

El desequilibrio es estructural, y se deben aprobar cambios estructurales para la sostenibilidad del sistema.

Horregatik exijitzen duguna da Gernikako Estatutua behingoz bete dadila, 39 urte onartu zenetik, eta han jasota dago Gizarte Segurantzak erregimen ekonomikoaren kudeaketa transferitzea.

Por ello, lo que exigimos es que se cumpla de una vez el Estatuto de Gernika. Han transcurrido 39 años desde su aprobación, y en él se recoge la transferencia de la gestión



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

39 urte pasatu dira eta oraindik ez digute transferitu. Guk esaten duguna da kudeaketa hemen egiten bada, Euskal Autonomia Erkidegoan, ez Elgoibarko Udalean, Kudeaketa gertuagokoa eta eraginkorragoa izango dela euskal pentsiodunentzat.

Transferituz, seguru hobeto kudeatuko dugula, euskal gizartea aurreratuagoa delako, eta hori ez dago zertan demostratu beharrik.

Gure modeloa, eta horretarako ekonomia ituna, kontzertu ekonomikoa, adibide hartan badugu, gure modelua arrisku modelua da, eta ez diezagutela esan Madriletik numeroak negatiboak direla eta ez dutela ematen.

Asumituko ditugu, transferitu ditzatela eta asumituko ditugu. Guk gure sistema propioa nahi dugu egitea.

Legea da, eta behingoz bete egin dezatela.

Horregatik uste dugu Legebiltzarrak onartu duen mozioan, exigentzia guztiak jasota daudela, eta horren alde bozkatuko dugu.

PSE-EE Udal Taldeko Bozeramailea den Alustiza andreak dio ados dagoela bai batak zen besteak esandakoarekin.

Uste du horrelako gai batean, jendea babestu behar dugula, batez ere kontutan izanda zein den errealitatea eta etorkizuna askoz txarragoa izango dela.

Hala ere, bi mozio izanik, bati bakarrik eman diezaioket baietza, eta nahiz eta edukiekin ados egon, EH Bilduren mozioari ezetza emango diot, eta bestearen alde egingo dut.

Han pasado 39 años y aún no nos la han transferido. Lo que decimos es que si la gestión se realiza aquí, en la Comunidad Autónoma de Euskadi, no en el Ayuntamiento de Elgoibar, la gestión va a ser más cercana y efectiva para las y los pensionistas vascos.

Si se transfiere, seguro que lo gestionaremos mejor, porque la sociedad vasca es más avanzada, y no hay necesidad de demostrar eso.

Nuestro modelo, y si para ello tomamos como ejemplo el pacto económico, el concierto económico, vemos que nuestro modelo es un modelo de riesgo, y que no nos digan desde Madrid que los números son negativos y que no dan.

Lo asumiremos, que lo transfieran y lo asumiremos. Nosotros queremos hacer nuestro propio sistema.

Es la ley, y que por una vez la cumplan.

Por ello, creemos que en la moción que ha aprobado el Parlamento se han recogido todas las exigencias; por tanto, vamos a votar a favor de ello.

La Sra. Alustiza portavoz del Grupo Municipal PSE-EE dice estar de acuerdo con lo que han dicho unos y otros.

Cree que ante un tema de esta índole, debemos proteger a la gente, sobre todo, teniendo en cuenta la realidad y que el futuro va ser mucho peor.

Aun así, tratándose de dos mociones, solo puedo dar mi voto a una, y a pesar de que estoy de acuerdo con ambos contenidos, voy a dar mi negativa a la moción de EH, y voy a votar a favor de la otra



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

EH Bildu Elgoibar Udal Taldeko Bozeramailea den Ibarzabal jaunak dio zuen mozioa anbizio handikoa eta Duintasunekoa baino exijenteagoa dela diozue.

Bakarrik ikusita nola hasten den mozioa, hau da, Estatuko gobernuari eskatzen zaio, eta ondoren, eskaera guztiak, pentsatzen dugu, besteen teiltuan pilotak jartzea, baldin bada, exijenteagoa izatea, agian hala izango da, baina eraginkorra, ez dakit zein mailatariano.

Batez ere, Espainiako gobernuaren politikak nondik nora dihoan jakinda.

Esaten duzue, hori egin behar dela kompetentziarik ez daukagulako.

Konpetentzia hori, ez da izango gure konpetentzia, baina, adibide, gaur egun Eusko Jaurlaritzatik, dagoeneko pentsio batzuk osatzen dira gure konpetentzia izan gabe, eta 16.000 pentsiodunak jasotzen dituzte Eusko Jaurlaritzatik laguntza horiek.

Nolatan ausartu zarete hori egiten, ez baldin bada gure konpetentzia.

Konpetentzia zer da, kantitatearen arabera?

Eta konpetentziak ere, AHTaren obrak egiterakoan, gure konpetentzia ez da baino, milioiak eta milioiak aurreratu dituzte Eusko Jaurlaritzatik Espainiako Gobernuak ez zuelako ipintzen.

Orduan , ez diren gure konpetentziak izango, baina, nahi denena, eta hemen dago gakoa, lehentasunetan baldin badaukagu, alde batera lagatzen ditugu konpetentziak.

El sr. Ibarzabal portavoz del Grupo Municipal EH Bildu Elgoibar comenta: decís vuestra moción es muy ambiciosa que es más exigente que la de Duintasuna.

Solo viendo cómo empieza la moción, es decir, viendo que se solicita al gobierno del Estado, y después si pensamos, que, todas estas solicitudes, es decir, poner la pelota en el tejado de los otros es ser más exigente, tal vez sea así, pero no sé hasta qué punto va a ser efectivo.

Sobre todo, sabiendo hacia dónde van las políticas del gobierno de España.

Decís que hay que hacer eso porque no tenemos competencias.

Esa competencia no será nuestra competencia, pero por ejemplo, hoy en día, el Gobierno Vasco complementa algunas pensiones, sin que sean competencia nuestra, y son 16.000 las y los pensionistas que reciben esas ayudas desde el Gobierno Vasco.

Cómo os habéis atrevido a hacer eso, si no es de nuestra competencia.

¿La competencia qué es, según el importe?

Y en cuanto a las competencias de las obras que se están llevando a cabo para el TAV: no es nuestra competencia, pero el Gobierno Vasco ha adelantado millones y millones, porque el Gobierno de España no ponía el dinero.

Entonces, no serán nuestras competencias, pero si las que se desean, y aquí se encuentra la clave, están entre nuestras prioridades, dejamos de lado las competencias.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Eta noski dirua dagoela, baina horixe da politika, hau da, erabakitzea non gastatu behar diren diruak.

Y claro que hay dinero, pero eso es la política, es decir, decidir en qué se deben gastar los dineros.

Zuk ipini duzu horrela kontrajarrian, pentsioak igotzeko, nondik kendu beharko zen, hezkuntzatik?, osasunetik?

Tú, en contraposición, has dicho que de dónde habría que quitar para subir las pensiones, ¿de educación? ¿de sanidad?

Niri beste atal batzuk okurritzen zaizkit kentzeko, eta adibideak ipini beharrik ez dago.

A mí se me ocurre que se puede quitar de otras partidas, y no hay necesidad de poner ejemplos.

EAJk aurkeztu duen mozioaren aurrean abstenitu egingo gara. Arazoa ez da esaten duzuen, arazoa da ez duzuen esaten.

Así, nos vamos a abstener ante la moción que ha presentado EAJ. El problema no es lo que decís, sino lo que no decís.

Esaten duzuenarekin, edozein egon daiteke ados, Karta a los Reyes Magos bat bezalako denez.

Cualquiera puede estar de acuerdo con lo que decís, puesto que es como la Carta de los Reyes Magos.

Pentsatzen dugu, aurkezten duzuen mozioa, eskuak garbitzeko modu bat dela, beste batzuen teiltuan pilotak jartzeko, itxurakeria hutsa, zeren, orain arte demostratu da, pentsio duin batzuren alde zerbait egiteko aukera izan duzuen bakoitzean, ez duzuela ezer egin, edo kontra egin duzuela

Pensamos que la moción que presentáis es una manera de lavaros las manos, de poner la pelota en tejado ajeno, pura apariencia, porque, hasta ahora se ha demostrado que cuando habéis tenido la oportunidad de hacer algo a favor de unas pensiones dignas, no habéis hecho nada, o habéis actuado en contra.

Esatera noa 3 momentu eta 3 datu:

Voy a mencionar 3 momentos y 3 datos.

2016an pentsionisten hainbat eta hainbat elkartek, herri ekimen legegile bat aurkeztu zuten legebiltzarrean, 70.000 sinadura baino gehiagorekin.

En 2016, numerosas asociaciones de pensionistas presentaron una iniciativa legislativa popular en el Parlamento Vasco con más de 70.000 firmas.

Herri Ekimen Legegile horretan eskatzen zena zen, 1.080 euroko gutxieneko pentsio horretara heltzeko beharrezkoa izango zen kopuru osagarria jartzea.

Lo que se solicitaba en esa Iniciativa Legislativa Popular era que se estableciera un importe complementario para poder llegar a esa pensión mínima de 1.080 euros.

EAJk, PSE eta PPren laguntzarekin, ez zuten onartu ere egin proposamena, ez dute onartu diskutitzea ere Legebiltzarrean.

Con la colaboración del PSE y del PP, ni tan siquiera se ha aprobado la propuesta en el Parlamento Vasco, ni tan siquiera se ha aprobado que se discuta.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Ez zineten prest egon ezta ere proposamena aztertzeko.

No estuvisteis dispuestos ni tan siquiera a estudiar la propuesta.

Baztertu zenuten hasieratik.

La dejasteis a un lado desde el principio.

2017an, EAJren botoarekin, beharrezkoa izan zen boto horrekin, onartu ziren Espainako aurrekontuak, eta aurrekontuen Legeak 35. Artikuluak horrela dio: "Las pensiones abonadas por el sistema de la Seguridad Social, así como de Clases Pasivas del Estado, experimentarán en 2017 con carácter general, un incremento del 0,25 por ciento, en los términos que se indican en los artículos correspondientes de esta Ley."

En 2017, se aprobaron los presupuestos de España con el voto de EAJ, con ese voto que fue indispensable, y la Ley presupuestaria en su artículo 35 dice lo siguiente: "Las pensiones abonadas por el sistema de la Seguridad Social, así como de Clases Pasivas del Estado, experimentarán en 2017 con carácter general, un incremento del 0,25 por ciento, en los términos que se indican en los artículos correspondientes de esta Ley."

Aurrekontuak onartzerakoan, negoziatu zenituzten beste hainbat puntu, eta horregatik bozkatu zenuten alde.

A la hora de aprobar los presupuestos, negociasteis otros puntos, y por eso votasteis a favor de los mismos.

Baina ez zenioten garrantzi handirik eman, igoera honen alde botatzean:

Pero no le disteis mucha importancia al hecho de votar a favor de ese incremento.

Azkenik, 2018an, gaur bertan, EH Bilduk Legebiltzarrean, Diru Sarrerak Bermatzeko Legea baliatzea proposatu du berriro ere, pentsiodun guztiei bizi baldintzak duinak bermatzeko.

Finalmente, hoy mismo, EH Bildu ha propuesto en el Parlamento Vasco valerse de la Ley de Garantía de Ingresos para garantizar condiciones de vida dignas a todas las personas pensionistas.

Zehazki EH Bilduk proposatu du pentsio txikiak osatu ditzala eta urratsak ematen has dadila, lau urteko epean 1.080 euroko pentsioak bermatzeko.

Concretamente, EH Bildu ha propuesto que se complementen las pensiones pequeñas y que comience a caminar para garantizar pensiones de 1.080 euros en un plazo de cuatro años.

Garbi dagoena, bitartekoak eta abar, honi dela mahai batean hitz egin beharko dena.

Lo que está claro es que de los medios y otros temas habrá que hablar en otra mesa.

Helburu horretara heltzeko zer epe behar dugun, zer neurri hartu behar diren, eta abar. Baina ez zaudete prest horretaz ere hitz egiteko.

Qué plazo necesitamos para llegar a ese objetivo, qué medidas se deben adoptar, etcétera. Pero ni tan siquiera estáis dispuestos a hablar de ello.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Eta gaur bertan onartu duzue Legebiltzarrean, mozio bat non, alde batetik eskatzen diozuen Espainiako Gobernuari, bermatu dezala pentsio sistema publiko duin bat.

Hori da ambizioso izatea?

Eta egin duzuen bigarrenengo eskaera izan da Gasteizko Gobernuari, eskatu mantendu ditzala orain ematen dituen laguntza osagarri hori, gaur egun 16.000 laguntzat dena.

Hori al da ambizioso izatea?

Zabala andreak dio leporatu diguzuela besten teilatuan jarri dugula pilota, Estatuaren teilatuan, noski, noren teilatuan? Trumpen teilatuan ez dugu jarriko.

Azken finean, bere esku dago guri transferitzea konpetentzia.

Behin eta berriz aipatu duzu RGI edo diru sarrerak bermatzeko Errenta, Eusko Jaurlaritzak ordaintzen duen errenta.

RGIaren baitan, hau da lanik ez daukaten pertsonak, baliabide gutxi dituzten langileak, pentsiodunak, bestelako pentsio batzuren onuradunak, bizileku baimenik ez duten atzerritarrak, eta abar.

Ari gera diru sarrerak bermatzeko errenta bati buruz, eta pentsioa beste gauza bat da. Ez ditzagun nahastu.

Leporatu diguzue EAJk Rajoyren aurrekontuen alde bozkatu zuenean %0'25eko hazkundea han jasota zegoela. %0'25eko hazkundea lehenagotik dator, hau da, 2013 Lege batetik. Aurrekontuak ez du hori onartu, baizik eta lehendik datorren Lege batek.

Y hoy mismo habéis aprobado en el Parlamento Vasco una moción, donde, por un lado, solicitáis al Gobierno de España que garantice un sistema público de pensiones digno.

¿Es eso ser ambicioso?

Y la segunda solicitud que habéis realizado es que habéis pedido al Gobierno de Gasteiz que mantenga esa ayuda complementaria que viene concediendo hasta ahora y se extiende a 16.000 personas.

¿Es eso ser ambicioso?

La sra. Zabala comenta que nos habéis acusado de haber puesto la pelota en tejado de otros, en el tejado del Estado por supuesto; dónde si no. No la vamos a colocar en el tejado de Trump.

A fin de cuentas, está en sus manos transferirnos la competencia.

Una y otra vez, nos habéis recordado la RGI o la Renta de Garantía de Ingresos, la renta que abona el Gobierno Vasco.

Dentro de la RGI entran las personas desempleadas, las que disponen de pocos recursos, las pensionistas, las beneficiarias de otras pensiones, las personas extranjeras que no poseen permiso de residencia etcétera.

Estamos hablando de la renta de garantía de ingresos, y la pensión es otra cosa. No las mezclamos.

Nos habéis echado en cara que cuando EAJ votó a favor de los presupuestos de Rajoy el incremento del 0,25 % ya estaba recogido. El incremento del 0,25 % viene de antes, es decir, de una Ley de 2013. Ese incremento no ha sido aprobado por el Presupuesto, sino por una Ley anterior.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Baita ere leporatu diguzue, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetatik bideratzen baldin badugu konplementu osagarri bat 1080 €-tara heltzeko iristen ez diren pentsioak, nondik kenduko dugula.

Azken finean, aurrekontua suma 0 da.

Adibide bezala, aipatu dituzu osasuna edo hezkuntza, baina errepideak edo beste zerbait izan daiteke. Hori aurrekontuaren negoziazioaren kontua da, ez da hemengo lana. Badauka bere foroa eta momentua guzti hori diskutitzeko lehentasunak lehentasun.

Hala eta guztiz pentsatzen dugu, Eusko Jaurlaritzak ez duela karga hori asumitu behar, ahalik eta konpetentzia transferitzen ez den bitartean.

Azkenena, Carta a los Reyes Magos leporatu diguzue.

Pentsiodunen gai hau diskutitzen ari da Kongresuan, Eusko Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan, hainbat eta hainbat Udaletan.

Gu Elgoibarko Udalean gaude, gure eremua iristen denerainokoa da, eta gure esku ez dago. Guk egin dezagekuna da Espainiako Gobernuari exijitu, eta hori egiten ari gara, eta ahal dugun neurrian, zarata aterako dugu, nahiz eta erabakia, beste nonbait egon behar den.

Ibarzabal jaunak dio, beti argumentatzen duzuela gure konpetentzia ez dela.

Ados, gure konpetentzia ez da.

Asimismo nos habéis echado en cara que si tramitamos de los presupuestos del Gobierno Vasco un complemento para alcanzar los 1080 euros, que de dónde vamos a quitar.

A fin de cuentas el presupuesto es una suma 0.

Como ejemplo, has mencionado la sanidad o la educación, pero también pueden ser las carreteras o cualquier otra cosa. Eso corresponde a la negociación del presupuesto, no es un trabajo de aquí. Tiene el foro y el momento para que sea discutido, a pesar de las prioridades.

Aun así, consideramos que el Gobierno Vasco no debe asumir esa carga, mientras no se transfiera el número máximo de competencias.

Y lo último nos habéis echado en cara lo de la Carta a los Reyes Magos.

Este tema de los Pensionistas se está discutiendo en el Congreso, en el Parlamento Vasco, en las Juntas Generales, y en numerosos Ayuntamientos.

Nos encontramos en el Ayuntamiento de Elgoibar, y nuestro ámbito alcanza hasta donde alcanza, y no está en nuestras manos. Lo que podemos hacer es exigir al Gobierno de España, y es eso lo que estamos haciendo, y en la medida de nuestras posibilidades, haremos ruido, a pesar de que la decisión deba adoptarse en algún otro lugar.

El sr. Ibarzabal dice que siempre argumentáis que no es nuestra competencia.

De acuerdo, no es nuestra competencia.



OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Tresnak baditugu erantzuteko gure lehentasuna izane gero? Bai, tresnak baditugu. Ez badira erabiltzen, da ez delako nahi.

¿En el caso de que sea nuestra competencia, tenemos herramientas para responder? Sí, ya tenemos herramientas. Si no se utilizan, es porque no queremos.

Jarraian, arestian aipatutako bi mozioak bozkatu dira.

Acto seguido se procede a someter a votación las dos mociones citadas.

A) Bozketa egin ondoren, "Duintasunaren Elkarteak" egindako proposamenari jarraiki, EH Bilduk pentsioei buruz aurkeztu duen mozia baztertu egin da ondorengo emaitzarekin:

A) Sometida a votación la moción presentada por EH Bildu Elgoibar a propuesta de "Duintasunaren Elkartea" en relación a las pensiones, la misma es rechazada con el siguiente resultado:

-Aldeko botoak: 5 (EH Bildu)
- Aurkako botoak: 9 (EAJ)
- Abstentzioak: 1 (PSE-EE)

- Votos en favor: 5 (EH Bildu)
- Votos en contra: 9 (PNV)
- Abstenciones: 1 (PSE-EE)

B) Bozketa egin ondoren, EAJ-PNVk pentsioen sistema publikoari buruz aurkeztu duen mozia onartu egin da ondorengo emaitzarekin:

B) Sometida a votación la moción presentada por EAJ-PNV en relación al sistema público de pensiones, la misma es aprobada con el siguiente resultado:

-Aldeko botoak: 10 (EAJ eta PSE-EE)
- Abstentzioak: 5 (EH Bildu Elgoibar)

- Votos a favor: 10 (PNV y PSE-EE)
-Abstenciones: 5 (EH Bildu Elgoibar)

BEDERATZIGARRENA.- ESKARI-GALDERAK.-

NOVENO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-

Ez da ez eskaririk, ez galderarik egon.

No se presentan.

Eta iluntzeko zazpiak eta berrogeita bost minutu direnean, Lehendakari andreak bilkura bukatutzat eman du, eta nik, Idazkari naizenez, hau guztiau egiaztatu dut.

Y siendo las diecinueve horas y cuarenta y cinco minutos, la Sra. Alcaldesa-Presidenta levanta la sesión, extendiéndose la presente acta que yo en calidad de Secretario certifico.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Alkate andrearen oniritziarekin, Elgoibarren bi mila eta

Y para que así conste, expido la presente certificación con el Vº. Bº. de la



ELGOIBARKO UDALA

OSOKO BILKURA
2018/03/22
3 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

hemezortziko martxoaren
hiruan.-

hogeita

Sra. Alcaldesa, en Elgoibar a veintitrés
de marzo de dos mil dieciocho.-----

O.E.-Vº.Bº.
ALKATEA, - LA ALCALDESA